

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Aintzane Ezenarro Egurbide** Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, osoko bilkuran, ahoz erantzuteko ondoko **galdera** egiten dio Gemma Zabaleta **Enplegu eta Gizarte Politika Sailburuari, Haurren eta Nerabeen Defendatzaileari buruz:**

### **ZIOA:**

Legebiltzarreko agerraldian aditzera eman zuen Enplegu eta Gizarte gaietarako sailburuak Haurren eta Nerabeen Defendatzaileak orain arte egin dituen eginkizunak Arartekoaren erakundearen baitan hobeto egongo liratekeela eta hori dela eta, Haurren eta Nerabeen Defendatzailearen legea aldatzeko asmoa duela gobernuak, eta hala eskatzen bada, baita Arartekoaren legea ere, lekua izan dezan Defentsoria horrek Arartekoaren erakundearen baitan.

Hori dela eta, zera galdetu nahi genioke Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburuari:

### **GALDERA:**

- Bertan behera utziko da egun martxan dagoen Haurren eta Nerabeen Defendatzailea, figura hori baitan har dezan Arartekoaren legea aldatu bitartean?

**Gasteizen, 2009ko ekainaren 30ean**

**Aintzane Ezenarro Egurbide**

**Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea**